

URRIAN ZER EREIN EDO LANDATU?

Hil honetan udazkenean sartu garela nabaritzen da eta tenperatura aldaketak eta hezetasunak horren adierazle dira. Gero eta denbora gutxiago dugu laboreak landatzeko eta are gutxiago ereiteko; baldintza klimatikoak gogortzen direnean, landareak motelago hazten dira eta haziak zailtasunak izaten dituzte ernetzerako orduan.

Hala ere, hil honetan zehar, eguzkiak berotzen duen egunak eta asteak ere izaten ditugu; hori dela eta, lur epela oraindik lantzeko aproposa izaten da. Baina, **zer labore erein edo landatu daiteke hil honetan?**

Ziazerbak edo espinakak: ziazerbak edo espinakak propietate ugari ditu, baina, bitxikeria bezala esan beharra dago Popeyek marrazki bizidunetan azaltzen ziren kopuru horiek jan izan balitu, dagoeneko hilda egongo litzatekeela azido oxalikoaren eraginez. Labore honi ez zaio konpost berria gustatzen eta lur gehientsuenetan ondo hazten da. 30 cm-ko tartea duten lerroetan ereiten da landare artean 25 cm distantzia uzten delarik eta gehienez 2 cm-ko sakoneran. Batzuetan kabailoietan ere ereiten da lurra modu egokian drainatu dadin. Garrantzitsua da aipatzea zerben familiakoa dela, hosto-errosetak ematen dituela, eta ondorioz, sortu ahala bildu daitezkeela.

Florentziar mihilua: apaingarria den mihilutik desberdintzen da hostoen peziolo-oinarriaren lodiera jaten delako, kukulu forma izaten du. Lur aberatsak gogoko ditu eta heldutako materia organikodun lurrak gustuko ditu. 30 x 40-ko markoan erein edo landatu ondoren, arreta / lan gutxi eskatzen duen laborea da eta kukuluek 5 cm lodiera dutenean mozten dira.

Tipulina: tipulek udan utzitako hutsunea betetzeko aukera ezin hobea da. Ehundaka tipula landare erosten dira eta 10 x 25 neurriko landatze-markoan jartzen dira. Oso garrantzitsua da belar arrotzetatik babestea zikloaren ia amaierara arte eta apirilean biltzen dira.

Honako hauek ere erein edo landatu daitezke: errefrautxoa, kanonigoak, txikoriak, borraja, bruselazak, azak, eskarolak edo osterzuriak, ...

¿QUÉ SEMBRAR O PLANTAR EN OCTUBRE?

Este mes **se palpa que vamos sumergiéndonos en el otoño** los cambios de temperatura y humedad son muestra de ello. Nos queda cada vez menos tiempo para plantar cultivos y aún menos para sembrar ya que cuando las condiciones climáticas se van endureciendo las plantas crecen con mayor lentitud y las semillas germinan con dificultad.

Aún así durante este mes suele haber días incluso semanas en los que el sol calienta y el suelo todavía templado se puede trabajar. Pero **¿Qué cultivos podemos sembrar o plantar este mes?**

Espinacas: la espinaca tiene multitud de propiedades pero como curiosidad decir que si Popeye hubiese comido todo lo que aparecía en los dibujos hubiera muerto envenenado por ácido oxálico. Es un cultivo al que no le gusta el compost fresco y crece bien en la mayoría de los suelos. Se suele sembrar en hileras distanciadas a 30cm con unos 25cm de distancia entre plantas y como mucho a 2cm de profundidad; a veces incluso se siembra en caballones para que el suelo drene mejor. Es importante mencionar que siendo de la familia de las acelgas produce las hojas en roseta por lo que se puede ir recolectando según va produciendo.

Hinojo florentino: difiere del hinojo ornamental en que a este se le come el engrosamiento de la base del peciolo de las hojas, que suele tener forma de cogollo. Suele gustar de suelos ricos pero con materia orgánica bien madura. Una vez sembrada o plantada en un marco de 30x40, es un cultivo que requiere poca atención y los cogollos se cortan cuando tienen unos 5cm de grosor.

Cebolleta: suele ser la opción ideal para llenar el vacío que dejan las cebollas de verano. Se suelen comprar plantas de cebolleta por cientos colocándolos en un marco de plantación de 10 x 25. Es muy importante mantenerlos libres de hierbas adventicias hasta casi el final de ciclo y se recolectarían hacia abril.

También se pueden sembrar o plantar: el rabanito, los canónigos, achicorias, borraja, col de bruselas, berzas, escarolas, ...